

2007ko maiatzaren 31 • XXVII. urtea
www.ttipi.net



24 orduko geldialdia Zalaingo lantegian

19

Zuzendaritzarekin adostasunik lortu ezinik jarraitzen dute Zalaingo tubo lantegian. Hala, 24 orduko geldialdia eta manifestazioa egin zuten maiatzaren 23an.



Sokatiran Beti Gazteko neskak txapeldun

35

Nafarroako Goma Gaineko 4x4 sokatira txapelketako txapela Beti Gazteko neskek lortu dute. Mutiletan, Beti Gazte bigarren eta Amaiur hirugarren izan dira.

2007KO HAUTESKUNDEAK

03

Ekainaren 16an hartuko dute kargua Udal hautetsi berriek





elkarlanaren emaitza



2007ko udal hauteskundeak emaitzak herri herri

Ekainaren 16an hartuko dute kargua hautetsi berriak. Herriren batean inpuñaziorik balego, kasu horretan uztailaren 6an hartuko lukete.

ZERRENDA IREKIAK | HAUTETSI AK 5

ELGORRIAGA	Bostorraz (3) NaBai (2)	Alkategaia:	Santos Irurueta
ERATSUN	Iruñari (5)	Alkategaia:	Pedro A. Deskarga
EZKURRA	Bostorraz (5)	Alkategaia:	Julian Gogortza
SALDIAS	Indepndienteak (5)	Alkategaia:	Pedro Urrutia
URROTZ	Herriko Alkartasuna (5)	Alkategaia:	Jose Luis Larraioitz
ZUGARRAMURDI	Akelarre (5)	Alkategaia:	Evaristo Mentaberri

ARANTZA	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 595	
Ainara MAIA ALMANDOZ (Arantza Aitzinera)	
2003	2007
A.Aitzine	4 276 boto
EAJ-EA	7 231 boto
Baliogab.	232 boto
Zuriak	18 boto

ARESO	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 258	
Mikel BARAIBAR (Areso Eraikiz)	
2003	2007
Areso Er.	5 157 boto
CDN	2 61 boto
Batzarre	4 146 boto
GIA	3 99 boto
Baliogab.	4 boto
Zuriak	1 boto

BAZTAN	
13 HAUTETSI	
Zentsoa: 7372	
Virginia ALEMAN (NaBai)	
2003	2007
NaBai	7 1931 boto
UPN	5 1615 boto
EA	8 2554 boto
PSN	0 107 boto
Baliogab.	471 boto
Zuriak	76 boto

BEINTZA-LAB.	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 268	
Fco. Javier OTXANDORENA (Urradi)	
2003	2007
Urradi	7 339 boto
Baliogab.	-
Zuriak	-

BERA	
11 HAUTETSI	
Zentsoa: 3004	
Josu IRAZOKI AGIRRE (EAE-ANV)	
2003	2007
Aralar	3 472 boto
EA	4 538 boto
EAE-ANV	4 596 boto
EAJ-PNV	2 366 boto
Herrialde	4 654 boto
Baliogab.	13 boto
Zuriak	31 boto

BERTIZARANA	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 567	
Andres ETXENIKE (B.Elkartalde)	
2003	2007
B.Elkartar	7 281 boto
B.Bai	2 102 boto
EAE-ANV	1 70 boto
Baliogab.	20 boto
Zuriak	44 boto

DONEZTEBE	
9 HAUTETSI	
Zentsoa: 1176	
Miguel SAN MIGUEL (EA)	
2003	2007
EA	5 427 boto
EAJ-PNV	4 349 boto
Baliogab.	60 boto
Zuriak	37 boto

ETXALAR	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 714	
Patxiku IRISARRI (Herri Taldea)	
2003	2007
EA	3 209 boto
Herri Tal.	4 240 boto
Baliogab.	6 boto
Zuriak	11 boto

GOIZUETA	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 742	
Miel Joxe LEKUONA (EAE-ANV)	
2003	2007
EAE-ANV	4 292 boto
Elkartasun	3 288 boto
GB	7 281 boto
Baliogab.	72 boto
Zuriak	11 boto

IGANTZI	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 518	
Iñaki GOIENETXE (EAJ-PNV)	
2003	2007
EA	3 120 boto
EAJ-PNV	4 184 boto
Herri Tal.	7 315 boto
Baliogab.	18 boto
Zuriak	58 boto

ITUREN	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 425	
Miguel Angel PETRIRENA (EA)	
2003	2007
EA	7 207 boto
Baliogab.	70 boto
Zuriak	22 boto

LEITZA	
11 HAUTETSI	
Zentsoa: 2496	
Jabier ZABALO (EAE-ANV)	
2003	2007
Aralar	4 485 boto
EA	2 284 boto
EAE-ANV	6 846 boto
UPN	5 497 boto
Baliogab.	553 boto
Zuriak	30 boto


LESACA	
11 HAUTETSI	
Zentsoa: 2362	
Juan Fermin MITXELENA (EAJ-PNV)	
2003	2007
EAJ-PNV	5 658 boto
ONIN	5 624 boto
EA	2 261 boto
EAJ-EA	6 746 boto
Baliogab.	310 boto
Zuriak	30 boto

SUNBILLA	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 665	
Jose Fco. ERRANDONEA (EA)	
2003	2007
EA	7 301 boto
Sunbild.	1 93 boto
Baliogab.	116 boto
Zuriak	14 boto

URDAZUBI	
7 HAUTETSI	
Zentsoa: 338	
Santiago VILLARES (Azkar)	
2003	2007
Urtxume	7 161 boto
Azkar	4 140 boto
Baliogab.	-
Zuriak	-

Arano, Donamaria, Oitz eta Zubietan hemendik sei hilabetetara izanen dute udal hauteskundeak berriz egiteko deialdia.

NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK | 2007/05/27



• EAE-ANVren baliogabetzea tartean dela, boto nuloen kopurua ere altua da: 2.730 Goizuetaren kasuan, boto guztien artean, baliogabetutakoak izan dira gehienak, 284 boto.




• UPN-CDNk gehiengo osoa galdu du parlamentuan. 2003an baino eserleku 1 guttiago eskuratu du UPNk, eta CDNk 2 guttiago. Horrenbertzez, ezin izango dute gehiengo osoa lortu.

• NaBai koalizioa eskualdeko alderdirik bozkatuena izan da: 7.485 boto. Aitzineko legealdiko datuekin konparatuz gorakada nabarmena izan dute, 8 eserleku izatetik 12 izatera pasatu da.

NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK ESKUALDEKA | 2007/05/27



BAZTAN			BERTIZARANA			BORTZIRIAK			LEITZALDEA			URDAZUBI		
Partido	Votos	%	Partido	Votos	%	Partido	Votos	%	Partido	Votos	%	Partido	Votos	%
NaBai	2016	43,77	NaBai	1575	51,76	NaBai	2598	51,84	NaBai	1111	41,56	NaBai	185	46,60
UPN	1557	33,80	UPN	654	21,49	UPN	807	16,10	UPN	318	11,90	UPN	127	31,99
PSN-PSOE	264	5,73	PSN-PSOE	230	7,56	PSN-PSOE	412	8,22	PSN-PSOE	124	4,64	PSN-PSOE	25	6,30
IUN-NEB	41	0,89	IUN-NEB	57	1,87	IUN-NEB	80	1,60	IUN-NEB	32	1,20	IUN-NEB	5	1,26
CDN	97	2,11	CDN	111	3,65	CDN	115	2,29	CDN	96	3,59	CDN	26	6,55
EKA	1	0,02	EKA	5	0,16	EKA	5	0,10	EKA	2	0,07	EKA	0	0,00
RCN-NOK	24	0,52	RCN-NOK	20	0,66	RCN-NOK	34	0,68	RCN-NOK	13	0,49	RCN-NOK	4	1,01
Zentsoa	6369	100	Zentsoa	4345	100	Zentsoa	6840	100	Zentsoa	3482	100	Zentsoa	487	100
Partehartzea	4606	72,32	Partehartzea	3043	70,03	Partehartzea	5012	73,27	Partehartzea	2673	76,77	Partehartzea	397	81,52
Baliogabeak	540	11,72	Baliogabeak	341	11,21	Baliogabeak	893	17,82	Baliogabeak	941	35,20	Baliogabeak	15	3,78
Zuriak	66	1,42	Zuriak	50	1,64	Zuriak	68	1,36	Zuriak	36	1,35	Zuriak	10	2,52

ALDERDIRIK BOZKATUENAK HERRI HERRIZ | 2007/05/27


	Zentsoa	Partehartz.	Na Bai		UPN		PSN-PSOE		IUN-NEB		CDN		EKA		RCN-NOK		Baliogabeak		Zuriak	
			2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003
ARANO	122	50	26	38	3	4	1	0	0	1	4	4	0	-	0	0	16	23	0	1
ARANTZA	570	493	239	286	63	44	21	12	0	9	15	11	0	-	2	0	143	112	10	5
ARESO	245	215	77	88	14	19	11	6	4	3	45	78	0	-	0	0	61	51	3	4
BAZTAN	6369	4606	2016	2238	1557	1582	264	168	41	69	97	185	1	-	24	0	540	451	66	76
BEINTZA-LABAIEN	222	123	55	47	52	40	7	11	1	3	5	17	0	-	1	0	1	4	1	3
BERA	2871	1952	919	771	351	331	200	120	41	83	46	75	3	-	23	0	352	329	17	18
BERTIZARANA	517	391	164	163	92	87	36	13	10	17	8	10	2	-	2	0	72	54	5	15
DONAMARIA	334	223	122	155	51	63	12	12	2	2	13	3	0	-	0	0	21	19	2	8
DONEZTEBE	1131	842	398	445	229	227	88	44	25	20	39	48	1	-	4	0	42	57	16	28
ELGORRIAGA	170	156	84	68	28	25	5	1	1	2	14	8	0	-	1	0	23	22	0	3
ERATSUN	161	85	55	79	19	16	4	4	2	2	4	22	0	-	0	0	1	14	0	2
ETXALAR	649	487	249	270	89	79	15	8	4	6	11	12	0	-	0	-	105	96	14	13
EZKURRA	180	92	46	33	16	22	5	5	7	5	3	10	0	-	3	0	11	15	1	2
GOIZUETA	699	584	249	225	18	10	10	7	4	2	11	21	0	-	0	0	284	227	8	4
IGANTZI	492	343	225	196	64	84	37	22	6	8	8	30	0	-	3	0	27	44	11	7
ITUREN	394	274	153	200	32	30	18	6	0	3	7	10	0	-	1	0	57	59	6	2
LEITZA	2416	1824	759	763	283	360	102	63	24	20	36	69	2	-	13	0	580	535	25	23
LESACA	2258	1699	966	911	240	256	139	86	29	46	35	54	2	-	6	0	266	323	16	27
OITZ	119	57	38	37	7	13	9	0	1	5	1	1	0	-	0	0	1	12	0	2
SALLDIAS	115	71	35	39	9	8	8	1	3	0	7	19	1	-	1	0	7	17	0	3
SUNBILLA	592	480	301	270	68	65	18	18	5	1	8	13	0	-	1	0	65	58	14	2
URDAZUBI	306	272	132	107	84	63	13	11	4	2	20	37	0	-	3	0	7	6	9	5
URROTZ	150	101	40	37	38	32	11	3	0	0	1	12	1	-	5	0	1	3	4	5
ZUBIETA	260	148	84	225	13	10	9	5	0	1	1	6	0	-	1	0	39	57	1	1
ZUGARRAMURDI	181	125	53	53	43	49	12	10	1	8	6	18	0	-	1	0	8	7	1	4
Denetara	21523	15731	7485	7574	3463	3495	1055	633	215	325	445	763	13	-	95	0	2730	2595	230	263

Harpidetza sariak:	
Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka	
eta Leitza	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



**Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du**

• IRAKURLEAK MINTZO •

Igantziko Euskara

Batzordearen

esker ona

Igantzín, joan den
 apirilaren 29an, azoka
 antolatu genuen. Lehen-
 biziko aldia zen, eta he-
 rriko mapa egiteko dirua
 biltzea zuen helburu.
 Azoka antolatzeke eus-
 kara batzordeak bilera
 batera jende gehiago
 deitu zuen; izan ere, lan
 handia zegoen egiteko,
 eta batzordean ibiltzen
 garenok ezin genuen de-
 na gure gain hartu.

Bilera horretara dozena bat lagun bildu ginen; guztiak emakumeak, dena erran behar bada. Ideia zein zen azaldu genien, eta hasieratik laguntzeko prest agertu ziren. Lana ez zen makala: bakoitzak hainbertze etxe hartu zituen, horietara joan eta merkatuaren ideia azaltzeko. Gero berriz etxe horietara joan behar izan zuten, puskak biltzera. Merkatuaren bezperan bildutako puska guztiak antolatzen (sailkatzen, prezioa paratzen...) aritu ziren, eta egun berean baita saltzen ere. Emakume talde horri gure esker ona adierazi nahi diogu, haiek gabe ezin izanen baikenuen hura antolatu.

Gainera, puskak eman zituzten guztiei ere eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu. Ez dugu ahantzi beharmerkatua herritarrek emandako gauzeekin egin genuela. Hau da, herritarrek eman, eta guk saldu. Jendeak borondate ona erakutsi du, eta hori beti da eskertzekoa.

Azkenik, ezin utzi es-
kertu gabe egun horre-
tan merkatura etorri eta
hainborte puska erosi
zituzten guztiak. Egia
erran behar badugu,
inondik ere ez genuen
espero hainborte jen-
de etortzea, eta hain-
borte puska saltzea.

Batzuen lanari esker eta bertze aunitzen borondateari esker egun horretan 1.400 euro garbi-garbiak ateratzea lortu genuen. Ez dugu mapa egiteko behar genuen diru guztia bildu, baina proiektuari bulkada ederra emateko adina bai. Urte akabilan mapa prest izanen da, eta etxeguzietara ale bat bidaltzeko dugu. Eskerrik asko denoi.

**Igantziko
Euskara
Batzordea**

Zuzenketa

Aitzineko aldizkari batean Retegi II.ak Galtartza III.aren aurka 1993an jokaturako finalari buruzko liburuaren berria agertu zen, eta zuzenketatxo bat egin nahiko nuke. Iñakiren liburua euskaratu duena naiz, eta liburuaren irabaziak ez direla Gipuzkoako Aspacera joango argitu nahi dut. Irabaziak buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzat bideratuko da, Nafarroako osasun mentalen zerbitzuarentzat, hain zuzen. Asmoa pertsona hauentzat eskuz banakako txapelketa bat antolatzea da, eta txapelketa hau Iruñeko Labrit pilotalekuan jokaturiko da azaroa aldean. Badakit beste komunikabide batzuetan ere Aspaceren kontua aipatu dutela, baina zuzendu ahal bada hobeto. Mila esker liburuaren berri emateagatik eta zuen arretagatik. Beste bat arte.

Jexus Zufiria
«**Banaka Final handi**
bate anatomia»
liburuaren itzultzailea

Txinoko jaiak

herritik

herriarentzat

Aurten laugarren urte-
tez, Goizuetako Txino
Auzoko Jaien antola-
kuntzan aritu gara Gaz-
te Asanbladako kideok
herriari merezitako jaiak
eskaintzeko. Eta urtero
bezala, herriko hainbat
eragileren laguntza ja-
so dugu. Hauen artean
aipatzeko: Gestorak, Se-
gi, Umore Ona Elkarte-
a, Zubi-ondo eta Gordea
tabernak, Udala eta no-
la ez, Ansatarrak (txoz-
na jartzeko lekua uzte-
agatik) eta laguntza es-
kaini digute hainbat he-
rritar. Hauei guztiei, gu-
re eskerrik beroenak lu-
zatzen dizkiegu. Bes-
talde, jai hauetan parte
hartu duzen herritar
guztiak animatzen zai-
tuztegu, dagoeneko ur-
teroko ekintza bilkaka-
tu den jai hauetan par-
te hartzera. Besterik ga-
be, datorren urtean ere
elkar ikusiko gara Txino
Auzoko Jaietan. Jaiak
Herritik Herriarentzat.

**Goizuetako
Gazte Asanblada**

OHARRA

Eskutitz guztiekien batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

**BEINTZAKO
OSTATUA**
☎ 948 45 00 14
orbelak@albertgarcia-ortueta.com
or www.albertgarcia-ortueta.com/belakak
51731 BEINTZA CARRÉN

ORBELA 



 - Zinema programazioa eta erakustaldiak
 - Bideo / Multimedia emanaldiak
 - Soinuztapen orokorrak
 - Tresneria alokairua eta salmenta
LATSAGA
 kutsu-entzunezko zerbitzuak
 Lezola T/F 948 637 546 E latsaga@telefonica.net

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Noticias, 2007.05.14

«Egun batean Santiagoko Bidea egin behar nuela hitz eman nion nire buruari (...) Engantxatzen duen zerbait da, eta ez dago uzteko modurik (...) Bideko zati guztiak zoragarriak dira, baina niri Andaluzia eta Galizia batzen dituen bidea gustatzen zait gehien (...) Nire benetako ametsa Santiagoko Bidea Erromatik egitea litzateke, nahiz eta zaila den (...). Familia kezkatu egiten da, eta normala da, baina amets bat da (...)».

Tomas Erbiti

Santiagoko Bidea sei aldiz egin duen leitzarria
D. Noticias 2007.05.14

«Azken urteak zailak iragan dira Seaskarentzat: Federazioaren ibilmoldearentzat dirulaguntza eskasa izan da; (...) herriko etxeei eta gurasoei esker eskuratzen dituzten dirulaguntzen murrizteko; (...) negoziaketetan, estatuaren engaiamendu ahula agerian gelditu da, nahiz eta Euskararen Erakunde Publikoak parte hartu. Badira egun batzuk non erraiten ahalko genukeen: uholde baten eskasa genukeela Herri Urratsentzat! Eta hala egina da!».

Ixabel XARRITON

Seaskako presidentea
Gara 2007.05.14

• 11 GALDERA LABUR •

Urte aunitz kazetari lanetan. Zer eman dizu kazetaritzak?

14 urte daramatzat eta zerbait berria aurkitzea izan da. Egunero zerbait berria ikasten da, eta jendearekin hartu emana izateak aunitz betetzen nau.

Nor elkarriketatuko zenuke gustora?

Ameriketan edo mundu zabalean bizi diren Euskal Herriko etorkinak.

Kanpotik ikusten den bezalakoa al da telebista barrutik?

Ez. Lan handia egin behar da kamararen aitzinean jarri baino lehen ere, baina post-produkzio lanak garrantzi handia du. Hori kamararekin batera egiten da, bera gakoa da.

Ttipi-Ttapa inoiz egin gabeko erronkaren aitzinean dago: AEBetan, artzain joandako euskaldunekin...

Nire bizitzako ilusioa beteko dut eta zorioneko sentitzen naiz, nahiz eta erantzukizun handia izan.

Baztandar eta sunbilar bat AEBetan. Inoiz pentsatuko zenuen halako proiekturik garatzea?

Ametsetan bai, baina zuk ez al duzu inoiz ametsik izan?

Nolatan sortu zen?

Txilen izan naiz pare bat aldiz eta hemendik joandakoekin egoteko aukera izan nuen. Beti nahi izan dut AEBetako errealitatea ezagutu eta iaz «Bortzirietako artzainak Ameriketan» liburua idatzitakoan bertze pauso hori emateko beharra sentitu nuen.

Bakersfield, Fresno, San Frantzisko, Boise... Nola antolatu duzue?

Denbora eta pazientziarekin. Aunitz begiratu dut Interneten eta dozenaka e-posta bidali.

Zenbat artzainen lekukotzat biltzeko asmoa dago?

Zaila da zehaztea. Behin han gaudela, ziur aski uste baino gehiagorekin egoteko aukera izanen dugu.

Aurrekontu haundiko egitasmoa...

Bai, eta dirulaguntzak lortzea buru haustea izan da. Dena den, entitate publiko nahiz ribatuak izugarri ongi portatu dira. Eskertzen diegu..

Hemen gelditzen garenok, noiz izanen dugu zuen berri?

Egunero www.ttipi.net-en, kronikak bidaliko ditugu argazkiz hornituak.

Hegazkina hartzeko momentua da...

Espero dut bihotzean dudan sentimendu hau gure lanean islatzea. Mi-

la esker

Edumelan-

kide eta

bidai la-

gunari.



Goizalde URDANPILLETA
Ttipi-ttapako kazetaria

carroba
gostogileak elkarrekin
17 de esteira 25 bgo
948 63 08 99
www.carroba.net

J. RAMOS
zolak akutzilatzen eta
barnizatzen ditut
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

XIFELL
Ateneo 1 - BERA
Tfnoa: 948 621 488

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa
• Kirol Fisioterapia
• Osteopatia
• Masaiak
• Trafiko istripuetan aholkularitza
• Istripu eta osasun aseguruak
Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colón Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940
Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

ZJ
Zalain
jatetxea - hostala
14 logela bainu
eta TBrekin
Zalain auzoa s/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

ERREPIDEA

Bera-Endarlatsa zatiko obrak Mariezkurrenak eginen ditu

Ekainean hasi eta 2009ko ekainean bukatzea aurreikusia dute

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Herri Lan Sailak aurkeztu du N-121A errepidean, Bera-Endarlatsa arteko zati berria egiteko proiektua. Doneztebeko Mariezkurrena enpresa arduratuko da obrak, eta 16 milioi euroren truke egingen du, hasierako prezioa baino %12,52 merkeago. Alvaro Miranda Herri Lan eta Garraio kontseilariak maiatzaren 15ean aurkeztu zuen proiektua, Bortzirietako udal ordezkarien aitzinean.

Gobernu ordezkariak adierazi zuenez, lanak hasteko eguna ekainaren 10ean sinatuko da. Hortik aitzinera, enpresak nahi duenean hasi ahal izanen du lanean. Akitu, berriz, 2009ko ekainaren 30erako egitea espero dute. Gai-

neratu zuenez, uda honetan Behobiatik Igan-tzirako bide zatietan makinak lanean hastea aurreikusi dute.

Errepide zati berriak 2,533 metro izanen ditu, eta gasolindegia parean hasiko dira. Bukatu, berriz, Endarlatsako zubia baino lehenago. Hortik aitzinerakoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eskutik geldituko litzateke. Aipatu, zubia eta Endarlatsa-Behobia bide tarteei dagokiena, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean egingen direla.

Errepidea hasi eta 500 metrora, etorkizuneko egitekoa den industriagunerako sarbidea egingen da. Bidasoa zeharkatzen duten bi zubi eraikiko dira, 230 eta 196 metrokoak, Endarako zentralaren parean.



Gisa berean, zubietan ez ezik gainontze-koan hiru errete izanen ditu errepide berriak, 3,5 metroko zabalerakoak, eta bazterretan 1,5 metro utziko dira. Hiru erreteetatik bi Endarlatsatik Berara joateko izanen dira, bide hori malda goiti delako.

TRAFIKOA SAIHESTEKO NEURRI BEREZIRIK EZ

Gobernu ordezkariak jakinarazi zuenez, lanek irauten duten bitartean ez da trafikoa saihesteko neurri berezirik hartuko, baina kamioiei N-1 eta A-15 bideak erabiltzeko aholkatuko zaie. Errepide zatia irekita edukitzen saiatuko zirela ere gaineratu zuen.

Bertzalde, Bortzirietako alkateen, Gober-



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Bortzirietako udaletako ordezkariak, Bera-Endarlatsa errepide zatia aurkeztu zen egunean.

nuko teknikarien eta Gipuzkoako Foru Aldundiko artean lanaren segimendua egingen duen batzordea osatzeko asmoa iragarri zuten. Ingurumen inpaktuak

saiheste aldera, berriz, Nafarroako Gobernuak neurriak hartuko dituela adierazi zuen Mirandak. Ingurumenaren jarraipena egingen dela erran zuen.

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. - Benarta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfn: 948 631 536 - Fax: 948 631 550

ANSONEA
Ostatua-Jatetxea

Egitekoak menua eta
antzerkian menu bereziak

Terraza estalia eta Ziberkafea

Fanin Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

ZUBIONDO
Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrika

Tfn: 948 625 472 - BERA NAFARROA

BERA

III. Ekobera feria ekainaren 8an eta 9an egingen da

Kultur Etxean eta Altzateko Plazan izanen dira ekitaldiak

Amaia eta Ainhoa

Berako Udalak, Cerderna Garalur, NNPK eta Berako nekazari eta abeltzain ekologikoen laguntzarekin, III. Ekobera antolatu du. Aurreko bi urtetan bezala, ekainaren 8an Kultur Etxean, eta ekainaren 9an Altzateko Plazan, hainbat ekitaldi izanen dira. Feria honekin eskualdeko produktu ekologikoak ezagutzera eman nahi dira.

Bertzalde, Berako ikastetxeen artean egindako kartel lehiaketan, Jesusen Bihotza ikastetxeko Garbiñe Otxoteko Pikabea eta Jaione Bertiz Agirreren kartelak izan dira saritutakoak.

Sormen lanetarako eta musika bilketarako sariak

Berako Kultur Batzordeak sormen lanetarako eta musika bilketarako beken saridunen izenak jakitera eman ditu. Aurkeztutako lanen kalitatea eta interes kulturala aztertu ondotik, sormen lane-

tarako beka bi proiektu eman die. Fermin Iraolaren *Dharma* proiektuari 600 euro eman dizkio. Disko honetan Iraola eta Joxean Perez musikariek parte hartzen dute eta teknikari lanaz Iñaki Aguin arduratu da. Bertze 600 euro Josu Goiak eraman ditu «*Josu Goiaren filosofia... larru gorritan*» diskoarengatik. Musika bilketarako bekarekin, Josu Goia eta Begoña Rudik 3.000 euroko saria eraman dute.

Haitz eskalada eta orientazio ikastaroak

Larun Mendi taldeak uztailerako bi ikastaro antolatu ditu. Haitz eskaladako hastapen ikastaroa uztailaren 3an eta 4an izanen da (taldeak nahi izanez gero larunbatetan emateko aukera izanen da). Oiarzungo rokodromoan emanen dira oinarritzko ezagutzak eta Pasaia-ko haitzetan praktikak.

Orientazio ikastaroa, aldiz, uztailaren 11 eta 12an edo 14 eta 21ean izanen da Berako kiroldegian. Ikastaro hone-



ARTXIBOA

Joan den urteko azokan era guztietako produktuak ikusi ziren.

tan mapen sinbologiaren interpretazioa eta ipar orratzaren erabilerarako landuko dira. Ingu-ruan irteera bat eta ingurune ezezagun batean aurretik prestatutako ibilbide bat ere egingen dira. Ikastaroak bitartekoentzat dira, 12-14 urte bitartekoentzat bat, eta 15-18 urte bitartekoentzat bertzea. Halere, 18 urtetik goitikoak ere onartuko dira. Ikastaroak 9:00etatik 13:00etara emanen di-

ra (arratsaldeetara aldatzeko aukera izanen da). Ikastaro hauetan parte hartu nahi dutenek 012ra deituta izena eman beharko dute ekainaren 1etik 20ra bitartean. Prezioa 20 euro ingurukoa izanen da, taldekide kopuruaren arabera.

Hirigintzako azterlan estrategikoa

Maiatzaren 17an aurkeztu zen Kultur Etxe-

an Berako Udaleko Hirigintza Batzordeak egindako Hirigintzako azterlan estrategikoa. Dokumentu honekin Hirigintza Planak dituen hutsune eta gabeziei aurre egin, etxebizitzaren prezioan eragin eta herri eremuan sakontzea eta eztabaidatzea lortu nahi da. Jendaurrean dokumentuaren aurreakina aurkeztuko da eta datozen hilabetetan eztabaidatu eta sakonduz joanen da.

BERA Zere inguru klase guztietako lekuetara (sareak, zintak, armak, kuxak...) eta erretorikaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipin tratamenduak

gorEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 587 • Zabal, 42 A • BERA

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 • BERA

Alberto RETEGI

abokatua

948 630 763 • Alzate, 17 • BERA

LESAKA

Abesbatza bere 25. urteurrena ospatzen hasiko da ekainaren 2an

Emanaldia eskainiko du elizan Oñati eta Burlatako San Blas koralekin

Aitor AROTZENA

Jakina da herrian musikarekin zaletasun handia dela eta herriko musika taldeak ospakizunetan murgilduak dabilta azken aldian. Berriki, musika bandak bere 150. urteurrena ospatu zuen, urte kopuru horrek merezi zuen modu handian. Orain abesbatzaren txanda da. Aurtengo 25 urte bete ditu koralak, 1982an sortu baitzen, Maximo Hernandorena erretorearen ekimenez. Alde batetik, liturgietan fededun talde bat (emakumezkoak batez ere) kantari parte hartzeko beharra somatzen zen. Bertetik, gizon talde bat zortzikote bat sortzeko asmoz eta abesbatzen topaketa batean parte hartzeko asmoarekin maiz elkartzen zen. Santa Zezilia besta gertu izanik eta eliz abesbatza baten beharra ikusirik, bi talde hauek elkartu ziren bilera baten ondorioz eta Guillermo Agara izendatu zuten zuzendari.

Hogeita bortz urte pasatu dira eta eliz abesbatza bezala sortu zena, Lesakako abesbatza bihurtu zen. Gaur egun 26 ahots ditu, baina bertze 150 lagunei



ARGAZKIA: AITOR A.

Hainbat jendeke parte hartu zuen Gazte Egunean

"Gazteok elkartuz, herria bultzatu" lelopean antolatu zen Gazte Egunean jende aunitzek parte hartu zuen. Goizean, argazkian ikus daitekeenez, plazan txalaparta, tobera edo kirikoketa jotzen ikasteko aukera izan zen, baita marrazketa tailerrean aritzeko ere. Eguerdian, Nafarroako Eskolarteko bertso txapelketa erabaki zen Kattun. Plazako bazkariaren ondotik, triki-poteoa izan zen. Egun osoan ateri izan bazen ere, arratsean euri tanta batzuk erori ziren. Halere, horrek ez zuen Ataka, Akatu, Habeas Corpus eta Anestesiaren emanaldia galarazi. Gazteek ederki pasatu eta pasarazi zuten beraien egunean.

esker eutsi diote urte hauetan. Hauek guztiak eta batez ere bultzatzaile izan ziren Maximo Hernandorena eta Guillermo Agara zirenak gogoan izanzen dituzte ospakizunetan.

25. urteurreneko lehenbiziko ekitaldia larunbat honetan, ekainak 2, egingen da. 20:00etatik aitzinera San Martin

parrokian kontzertua eskainiko dute Imanol Muriak zuzentzen duen Oñatiko abesbatzak, Miguel Irisarrik zuzentzen duen Burlatako San Blas abesbatzak eta Marisol Perezek zuzentzen duen Lesakako abesbatzak. Lehenbiziko zatian Aita Madinaren Poema Arantzazu eskainiko dute eta bigarren

zatian Hilarion Eslavaren *Jesus Dulcis Memoria* eta *Tu es petrus* eta Aldaveren *Agur Jaina*.

Esteban Irusta izanen da organista, Maria Dolores Ordoki sopranoa, Juan Miguel Ordoki tenorra eta Imanol Murua baritonoa izanen dira bakarlariak eta Miguel Irisarri zuzendari.

FLASH

San Fermin elkarteko txapelketa

Urte garai honetan antolatu ohi ditu San Fermin jubilatuko elkarteak bazkideendako txapelketa ezberdinak. Hone-la, ekainaren 11n egingen da mus txapelketa azkarra; 12an seien txapelketa eta 13an despitse txapelketa, guztiak 18:00etatik aitzinera. Parte hartu nahi duten bazkideek ostatuko arduradunari jakinarazi behar diote. Kartak utzita, ekainaren 14an toka, bolo eta igel txapelketa jokatu dira. Ondotik berendua eskainiko da.

Beti Gazteko jokalariei ohiak bilduko dira ekainaren 9an

Beti Gazten futboleko aritukoak biltzeko asmoa dute ekainaren 9an. Goizean partiduren bat jokatu eta elkarrekin bazkaltzea da xedea. Gehienbat 1980 eta 1990. hamarkadetan aritutakoak ari dira antolaketa lanean, baina edozeinek parte har dezake. Egungo talde nagusiko jokalariek, bederen, bazkaltzera joateko intentzioa dute.

Sokatiran Beti Gazteko neskek txapeldun

Mutilen taldea Berriozarren ondotik azpitxapeldun izan bazen ere, Beti Gazte C nesken taldeak Nafarroako 4x4 sokatira txapelketa irabazi du. Neskek hiru talde aurkeztu dituzte.



ETXALAR

Igande honetan eginen da Gasna eta Artisau Feria Eguna

360.000 eurotik goitiko gastuak
eragin dituzte maiatzaren 4ko
uholdeek

Joseba eta Nerea

Urteroko ohiturari segituz, ekainaren lehen-biziko igandea feria eguna izanen da. Herriko plaza bazterrak jendez beteko dira eta goizean goizetik zerikusi eta zertaz gozatu izanen da.

Dozenatik goiti postu paratuko dituzte frontoian Euskal Herriko hainbat xokotatik etorritako artisau eta eskulangileek. Burnia, egurra, arropa, kristala... denetik lantzen duten profesionalak ikusi ahal izanen dira, eta zerbait erosi nahi dutenak ere aukera ederra izanen dute.

Aurtengoa gasna lehiaketaren 15. edizioa izanen da. Lehiaketara gasna aurkeztu nahi dutenek 10:30ak arte izanen dute aukera. Epaimahaia goiz osoan arituko da gasnak baloratzen eta 13:30ean egi-

nen da sari-banaketa. Herri-bazkaria, berriz, ordu erdi bat beranduago izanen da frontoian eta harat joateko txartelak Elutsa eta Herriko Ostatuan erosi ahal izanen dira ortzeguna, maiatzak 31, baino lehen.

Goiz osoan haurrentzako sormen-tailerrak izanen dira plazan eta herriko trikitilariak urteroko saioa eskainiko dute 12:30ean. Nagore Antsalas eta Joseba Olagarai buru dituztela, gisa guztietako abestiak plazaratuko dituzte herriko trikitilari gazteek ordu bat inguruko emanaldian. Andre Mari Dantza Taldeko kideek arratsaldean hartuko diete erreleboa eta dantza-saioa eskainiko dute 6etan.

Bertzalde, herriko emakumeen eskulan-erakusketa Kultur Etxe-



ARTXIBOA

Urtero bezala, herriko trikitilariak euren saioa eskainiko dute Gasna Feria Egunean, eguerdian.

an eginen da aurtien. Egun osoan ikusgai egonen dira aurtengo eskulan ikastaroan egingako lanak.

Bi lagunek komunioa

Joan den igandean, maiatzak 27, bi lagunek egin zuten lehen jautzartzea, Jon Iparragirre Olasagastik eta Julen Telletxea Perugorriak.

360.000 eurotik goitiko gastua

Nafarroako Gobernuko ikuskariak eta Udaltzeko teknikariak beren lana egin ondotik, 360.000 eurotan baloratu dira maiatzaren 4ko uholdeek eragindako kalteak. Antsolokueta eta Anduetzeta auzoan 60.000 euroko gastua

egin behar izan da eta mendietan, Urritzokietan auzoa barne, 300.000 eurokoa. Pistak, bide bazterrak, zubiak, errekek... etengabe lanean aritu dira aitzineko astetan eta oraindik ere moldatzeko gauza aunitz dago. Udako berak ailegatu arte ez da herria lehengo itxurara bueltatuko.

Aldaketak USOA kooperatiban

Maiatzaren 19an egindako bilkuran hainbat aldaketa adostu zituzten USOA nekazari kooperatiban. Lehen-dakari Arantxa Zubietak segitzen du, baina hainbat juntakide aldatu egin dira. Hauexek dira aurtien sartu diren berriak:

Gerardo Danboriena, Josetxo Ariztegi, Joxe Mari Olagarai eta Joxe Angel Ariztegi. Hauekin batera Juan Bautista Mitxelorena, Joxe Mari Pikabea, Xalbador Ansalas, Jose Luis Iantzi, Klaudio Espelosin eta Jaione Eugik osatzen dute junta.

BUTANO BONBONAK KOOPERATIBAN

Dagoeneko salgai daude kooperatiban etxeetako gas butano bonbonak. Bertze lekutan izaten duten prezio berean, CEPSA bonbonak nahi duten guztiek eskugarai dituzte. Aipagarri da botil hauek autoan eramatea baimenduta daudela eta aldi berean bi bonbona eramane daitezkeela.

Arkitektoak

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ORRATZEN PROIEKTUAK
URRATZEN PROIEKTUAK
ETXO BERRITZEN
NABARRA
BONBONAK
INFORMAZIOA: 33

SANTIAGO 35 2ºB ELIZINDO TLF 948 581 821

Javier Monterola

Arkitektoak, Ingenieros, Arquitectos

Inguruko - gasa - Arkitektoak

925 48682

Barandara 4, beheko - BERA

USOA

nekazari
kooperatiba

ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Borz IRUDI

borzirudi@telefonica.net

KARTELAK - KANPOTAK - BUSEAK - TITULAK (Nahi duzun neurri - dimentsioekin)

FOTOKOPIA DIGITALAK - BORDAK - TITULAK - PLANOAK

ENKADENAZIOAK - PLASTIKAZIOAK - PAPERETAK - BULIGU MATERIALA

DISENU GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - ERROTILAK - IMPRENTA

Ertegu, 26 Eskualdeko Bidea D - BERA - Tel-fax: 948 631 571

ARANTZA

14 bikote frontenis txapelketan parte hartzen ari dira

Maiatzaren 12an herriko gazteen herri kirol desafioa eta bazkaria izan ziren Oilargatan

Nerea ALTZURI

Aitzineko alean aipatu moduan, Ekaitza Elkartek antolaturiko frontenis txapelketa abiatu zen joan den maiatzaren 19an. 14 bikote partaide dira eta astebururo arratsaldez partidua jokatzeko dituzte herriko frontoian. Larunbat eta igande arratsaldetako partidak ekainaren 9ra bitarte izanen ditzute A eta B taldeko zazpina bikotek. Bi taldetan banatu baitira jokalaria. Ondoren, finalurrekoak eta finalerdiko partidak etorriko dira. Eta nortzuk parte hartzen duten, honako zerrendan:

A taldean ondoko bikoteak ari dira: Xabi Altzuri eta Iban Zugarramurdi, Joseba Madiaga eta Alberto Fagoaga, Aitor Telletxea eta Mikel Altzuri, Mikel Larretxea eta Joseba Pikabea, Jabi Mitxelena eta Antonio Goñi, Dani Iparragirre eta Jon Agilera, Patxi Mutuberria eta Dabit Iturria. B tal-

dean, berriz, Unai Iparragirre eta Eduardo Telletxea, Juanjo Altzuri eta Jabi Iparragirre, Ana Larretxea eta Gotzon Arenas, Borja Iturria eta Eneko Ordoki, Xabi Larretxea eta Xabi Agesta, Iosu Iparragirre eta Iñaki Larraioitz, Iñaki eta Xabi Gamon.

Oilargatako desafioa

Elkarri desafioa egin zioten eta data ere paratu zuten: maiatzaren 12a. Halaxe izan zen. Herriko hiru mutil gazte taldek herri kirol desafioa egin zuten Oilargatan. Bi lagun arpanean, lagun bat aizkoran, lasterkalari, txokor biltzaile, txingalari eta harri altxatzaile bana... Guztira zazpi gazte talde bakoitzean, proba konbinatuan aritu zirenak.

Apostuaren akabera borrokatua eta peletua izan zen, eta azkenean gazteen talde helduek irabazi zuen. Gaztetxoek helduen taldeari bazkaria ordaindu

behar izan zioten (Hori baitzen desafioaren muna). Eguerdioko saio horren ostean, 30 lagunek

giro ederrean bazkaldu zuten Girizia txabolan. Bazkalondoa alaitzeaz, Gurutze Pikabea eta Ai-

nara Amoros trikitilari eta panderojoleak arduratu ziren. Egun eder-rra atera omen zen.



ARGAZKIA: MARIA FAGOAGA

Alberto Fagoaga Espainiako zurgin lehiaketan

Alberto Fagoaga gaztea eta Galtzada etxekoa Ponferradan izan zen maiatzaren 17tik 19ra. Espainia mailako lehiaketa batean parte hartu zuen Albertok. Irungo Bidasoa institutuan zurgin ikasketak egiten ari da, lehenbiziko mailan. Institutu horretan, aipatutako lehiaketara joateko aukeratu zuten irakasleek, eta maiatzaren 18an, ortziralarekin, goizez iragandako lehiaketako saioan parte hartu zuen bertze 26 ikaslerekin batera. Aitzinetik ez zieten jakinarazi nolakoa izanen zen azterketa. Egun horretan planoa eman, eta lau bat orduko epean tenplarioa izeneko pieza egitea agindu zioten.

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

Egunero irekia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

ERREKALDE

PLASTER KONKURTATUAK

PINTXOAK

Ongi pasa bestaki!

Tfnoa: 948 630 259 BERA

Toallak-Mantelak-Oheko maldak... Eskola haurren mantelak etab... bordatzen ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blusa bakoitzaren logotipoa eta izenekin bordatzen ditugu

Herri Plz. Berriz 4-ko etxe ikusi bertako enkaia!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

ERROTAR

harategia

Bertako produktua

Eztogeta, 3 - BERA

Tel/Faxa: 948 630 088

SUNBILLA

Irati Arrieta Nafarroako Eskolarteko bertso txapelketako finalean izanen da

Ekainaren 2an jokatu da Larraintzarren

Jaione OTXANDORENA

Nafarroako Eskolarteko bertso lehiaketan, Irati Arrieta herritarrak lortu du datorren ekainaren 2an Larraintzarren jokatu den finalerako txartela. Irati Arrietak Sunbillakobertso eskolan ikasten du Itxaso Arrieta, Maite eta Laura Mendibilekin batera. Irakasle, berriz, Alazne Untxalo dute.

Bederatzi gaztek egin dute sendotza

Joan den maiatzaren 19an Sendotza egin zen herrian eta autengoan bederatzi gazteren txanda izan zen. Itxaso Arrieta, Irati Arrieta, Laura Mendibil, Jone Iribarren, Izaro Petrirena, Xabier Juankorena, Iñigo Agesta, Miriam Arauzo eta

Maider Arauzok egin zuten sendotza.

Juanjo Petrirenak segituko du bodegero lanetan

Ulibeltzak Elkartean aurten sartu den zuzendaritza batzorde berriak bodegero postua betetzeko deialdia zabaldu zuen orain hila-bete bat, hainbertze urtez bodegero lanak egin dituen Juanjo Petrirena kargua uztekoan zegoelako. Deialdia hila-bete batez argitaratua egon ondotik, ez da inor aurkeztu posturako, baina zuzendaritza Juanjo Petrirenarekin akordio batera ailegatu da, eta bertze hiru urtez bera izanen da elkarteko bodegero.



ARGAZKIA: OSKAR MINDEGIA

Eneko Herrerak brontzezko domina eskuratu du Nafarroako Judo Txapelketan

Errekako judoek emaitza onak eskuratuz segitzen dute. Horietan azkenetako bat Sunbillara etorri zaigu. Eneko Herrera herritarrak lortu du, Mendillorin jokatuak saioan. Nafarroako Txapelketa jokatu zen joan den maiatzaren 12an eta Enekok, benjamin mailan brontzezko domina bereganatu zuen.

Pinturas
Pikabea

Molinera

PINTURAK

Esmalteak • Bernizak • Lasura urpintura • Margo klase guziak

BONDEX urpintura • Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Zelai auzoa, Aceralia fabrikaren parean - BERA
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

DONEZTEBE

Larunbat honetan Errekaren Eguna eginen da

Kirol jarduerak, herri afaria eta musika kontzertuak izanen dira

ttipi-ttapa

Erreka Kirol Elkartek antolatuta, larunbat honetan, ekainak 2, bستا eguna izanen da herrian. Denboraldi bukatuera ospatzeko, Errekaren Eguna eginen da, eta horren harira, ekitaldiak prestatu dituzte. Egun guztian kirol ekitaldiak izanen dira. Goizeko 8etan mendi irtetara bat eginen da, «Hilerrien ibilaldia» deitua, Doneztebe, Legasa, Gaztelu, Donamaria, Oitz eta Elgorriagan baina ibili ondotik, Doneztebera itzuliko dira berriro. Hiru ordu inguru itzulua izanen da.

Arratsaldean segida izanen du kirolak. 15:45ean Errekako nes-

ken eskubalo partidua jokatuko da. Ondotik, 16:30ean, mutilen txanda izanen da. 17:30ean futbito partidua jokatuko da Titi-Gazteak eta Titi Zaharrak taldeen artean. Titi Ostatuak duela urte batzuk zuen taldea —hainbatetan txapeldun izandakoa— egungo taldearen aurka arituko da. 18:30ean, berriz, senior mailako eskubalo jokalarien txanda izanen da. Doneztebarrak TID San Antonio Portlanden bigarren taldearen kontra arituko dira. Aipatzekoa da, talde honetan hiru herritarrek jokatzen dutela: Niko Mindegia, Ibai Meoki eta Iñigo Mangado. Indabere legasa-



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Ahari lehiaketa arrakastatsua Udaberriko ferian

Maiatzaren 11n Udaberriko feria egin zen Donezteben eta jende andana hurbildu zen. Aurten estreineko, ahari lehiaketa antolatu zuten eta hagitx arrakastatsua izan zen: 12 artzainek ekarriak 20 ahari ikusi ziren. Maillerrekako artzainek zuten parte hartzeko gonbitea eta nahi adina aurkez zitzaleten. Ahari mutur beltz eta gorrientzako lehiaketa zen, baina buru gorriak bakarrik plazaratu zituzten. 120 eta 70 euroko lehen bi sariak ltu-renera joan ziren. Jose Ignacio Bera eta Jose Ignacio Elizalderentzat izan ziren, hurrenez hurren. 50 euroko hirugarren saria, berriz, Juana M^a Migeltorena sunbildarrak eraman zuen. Merkatuko plazan jende eta azienta aunitz, baina horrez gain, eskualdeko artisauak ere euren postuak paratu zituzten eliz atarian. Argazkian lehen bi postuetan eta hirugarren gelditu zen Juana M^a Migeltorenaren senarra ageri dira, Ramon Etxebeste Doneztebeko alkatearekin.

rrak ere bertan ari da.

Gauean herri afaria eginen da, 21:00etatik aitzinera. Afalondoan, Noelia Ariztia herriko ju-

dokari omenaldia eginen diote, 23 urtez azpikoetan Espainiako Txapelketan azpitxapeldun gelditu baita. Ondotik,

musika kontzertuak izanen dira: Doneztebeko Zenzeröck taldea lehendabizi, eta segidan, Jalisko Band taldea.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



Artesiagako Magnesita

Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua

Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore



ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.



ITUREN

Igande honetan eginen da Trinitate Eguna

Bazkariaren aitzinetik, ingude-altxatze apostua eginen da

Arkaitz MINDEGIA

Asteburu honetan da Trinitate Eguna. Egu-raldiak laguntzen baldin badu, jende aunitz hur-bilduko da Mendaurrekoan dagoen Trinitate ermitara. Ohiturari jarraituz, batzuk meza entzuteko mugituko dira, eta guztiek, lagun artean gosaltzeko eta mendiko kaskotik dagoen bistaz gozatzeko aprobetxatuko dute.

Aurtiztarrek eta iturrendarrak bazkaltzera geldituko dira enbaltsearen inguruan. Aurten, ingude-altxatze apostua izanen da bazkaria baino lehen: minutu batez zeinek altxaldi gehiago eman. Bazkalondoa animatzeko Kristian akordeolaria etorriko da.

Etixerako bueltan, bestarako animoarekin

daudenak Aurtitzen eginen dute lehen geldialdia tragoxka batzuk hartzeko. Arratsalde aplean dantzaldia izanen da Gaubela taldearekin Iturengo plazan.

Udaberriko ferian saridun

Donezteben, maiatzaren 11n, ahari mutur beltz eta gorrientzako lehiaketa egin zen lehenengo aldiz Udaberriko ferian. 120 eta 70 euroko lehen bi sariak Iturenera etorri ziren, Jose Ignacio Bera eta Jose Ignacio Elizalderentzat izan ziren. Zorionak bie.

Txapeldun eta txapeldunorde

Nafarroako Eskolarteko Bertso txapelketa finalera Alazne Untxalo, Egoitz eta Iker Gorosterrazu sailkatu ziren.



ARGAZKIA: ARANTXA ARIZTEGI

Ohitura den bezala, Mendaurreko kaskotik bueltan bazkaria eginen da enbaltsearen inguruko itzaletan.

Finala Lesakako Matxinbeltzean izan zen eta aurtengo Nafarroako 14 eta 18 urte bitartekoen Eskolarteko Bertso Txapelketako txapela Alazne jantzi zuen. Txapeldunordea ere herrikoa da: Iker Gorosterrazu. Biak, Iker eta Alazne, ekainaren 23an Altsasun jokatu den Euskal Herriko finalean parte hartzeko txartela eskuratu dute.

Granollerseko bidaia

Maiatzaren 19 eta 20an herriko joaldun, dantzari eta trikitilariak Bartzelonan egon ziren, Granollersen. Iaz ere

Kataluniara bisita egin zuten, baina inauterietako desfile batera. Oraingoan bestak ziren, eta Iturengo joaldun, dantzari eta trikitilariak batera jende aunitzek parte hartu zuen desfilean: «*Tambores y bombos de la adoración del huerto*», Tarragonako Errayoga dantzariak, Reuseko Printzipiaren dantza eta Granollerseko inauterietako *demoioak*.

Ibilbidea egin ondotik, herriko plazako eszenatokian talde bakoitzak bere ikuskizuna eskaini zuen. Iturengo Joaldunek buelta pare bat eman zuten eta dan-

tzariak muxikoak, fandangoa, arin-arin, zortzkoa... dantzatu zuten. Iluntzean, afaltzeko elkartu ziren denak, eta afalondoa trikitilariak girotu zuten.

Ekainaren 10ean Dantza Luzea

Urte aunitzez dantzatu gabe egon ondotik, herriko dantzariak joan den urtean berreskuratu zuten Bestaberri egunean Dantza luzea dantzatzeko ohitura. Hala, aurten ere, meza ondotik berriz dantzatu dute herriko plazan. Ekainaren 10ean izanena da hori.

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

Konsultak ordutegia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordus eskatu

ONDOROKETATIK INDARTZEKO:
Diabetes - Azina - Zikloak - Larru azaleko alergia - Buruko mina
Oinuen izardie - Prostatia, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA:
Mioopia - Bista alferria - Estrabismoa - Begi larruak kataraktak

GIHARRKE ARAZOAK:
Bikortzea - Artritis - Erreuma - Artritis - Lumbalgia - Bihurdurak - etab

Telefona: 943 623 055

San Marcial, 7 - 4 - IRUN



ABERASTASUNA

→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen**

sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak,

eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniaritza, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegiko sektorea.

→ Baztango gazteriarri **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko berriz eskualdetara joan behar izatea saihestuz.

INGURUGIROA

→ Artesiagako Magnesitarekin lurzorua eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarrizatuak diren soroak erdietsi eta azienda azkarragoak.

→ **Ingurumen kalitatearen kontroleko filtro bikoitza** pasa beharko du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitz horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ **Teknologiarik aurreratuena ingurumenaren zerbitzura.** Uhal garraiatzaileen karentza, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurunearen berreskuratze dinamikoa bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.



ETORKIZUNA

→ Artesiagako Magnesita errelebua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bileran bertan.



→ **Epe ertain eta luzerako proiektua.** Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epea bermatzen du, baina balleko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain daudenen jarduerak abokitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.



Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA

BERTIZARANA

Bertizaranako Eguna egingen da larunbat honetan Legasan

Goiz-goizetik hasita, egitarau zabala prestatu dute gazteek

ttipi-ttapa

Larunbat honetan besta eguna izanen da Bertizaranako. 2001ean egin zen lehenbiziko aldiz Bertizaranako Eguna, eta aurtengoa ere ez du hutsik egingo Bertizaranako gazteek. Udala-ren, Legasa eta Narteko kontzejuen eta BKZ enpresaren laguntzarekin, egun osoko egitaraua antolatu dute.

Ohikoa den bezala, 9:00etan suziria botatzen da eta gosaltzera joan dira. Segidan, 9:30ean, dijak izanen dira Oiergin, Narteko eta Legasan. Jende guztiak ongi pasatzeko animazioak prestatu dituzte. 10:00etan soka zirkuitoak egingen dira, BKZ-ren eskutik. 11:00etan, zesta punta partiduak jokatuko dira, eta



ARGAZKIA: MIREN URRIZA

Jende aunitz animatzen da herri bazkarira. Aurtengoa ere hala espero dute.

12:30ean bertako dantzariak dantza-saioa eskainiko dute.

Eta gorputzari astinaldia eman ondoren, 14:30ean herri bazkaria. Horretarako txartelak hartu beharko dira.

Eta bazkalondoa animatzeko, Agerralde akordeolariak joko du. 18:00etarako sokatira apustua prestatu dute, Bertizaranako gazteen artekoa.

22:00etan afaria izanen

da frontoiko kanpan edo plazan eta ondoren, egunari behar bezalako akabera emateko, gaupasa Trikidantz taldearekin. Besta noiz arte arte luzatuko den, hori norberak ikusiko du.

HEZKUNTZA

D ereduak goiti egingo du eskola publikoetan

ttipi-ttapa

Bukatu da ikastetxeetan hiru urteko haurren aurrekiritik egiteko epea, eta datuei erreparatu, Nafarroan eskola publikoetan D ereduak izan duen gorakada da aipagarria. Gorakada ikastetxe publikoetan izan da, ikastetxeetan, behera egin baitu izen emateak. Eskualdeari dagokionean, kopuruak berdintsuak dira iazko datuekin konparatu: 2006/2007 ikasturtean eskola publikoan 189 haurrek egin zuten aurrekiritik egitea D ereduarekin; 2007/2008 ikasturtean, berriz, 234k. Ikastolen kasuan, aitzinekoan 46 haurrek egin zuten aurrekiritik egitea, eta aurtengoa 42k.

BAZTAN

zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotatuak
- B Sukalde eta bainugelarako altzariak

PREZIO LEHIAKORRAK

Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367
M. 649 438 210

MENDI

ostatua

Santiago 25
T. 948 580 313
ELIZONDO

SOULE

leku onikoa
T. 948 453 060
M. 649 438 210

MENDIALDE

Jatetxea

T. 948 453 060
N-121-B, 6,6 km
LAMAIA

VENTANAS

ARAMBURU

Ongizate termiko eta akustikoa
Aluminioa egur koloretan



Gabiria, 42 IRUN
Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11

LANTEGIAK

24 orduko geldialdia egin dute Zalaingo tubo lantegiko langileek

Zuzendaritzaren jarrera salatzeako manifestazioa egin zuten maiatzaren 23an Lesakan

tti-pi-ttapa

Langileek eurak deituta, 24 orduko geldialdia egin zuten Zalaingo tubo enpresako langileek joan den maiatzaren 23an. Izan ere, Condesa lantegiko zuzendaritzak urtean zortzi lan egun (64 ordu) gehiago sartzea nahi du, eta langileak ez daude horrekin ados. Hitzarmenean ordu gehiago nahi ez dutelako, eta «enpresak bere nahiak inposatu ez ditzan eskatzeko» manifestazioa ere egin zuten Lesakan joan den astean.

Berrogei langile inguru bildu ziren Lesakako karriketan egindako manifestazioan, «Condesak Zalainen etorkizunari mehatxu egiten dio. Ordu gehiagorik ez» paratzen zuen



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

40 bat lagun atera ziren kalera protestan maiatzaren 23ko manifestazioan.

pankartaren gibelean. Urte bat baino gehiago daramatza Enpresa Batzordeak zuzendaritzarekin negoziatzen. Hogeita hiru bilera ere egin omen dituzte, bai-

na oraindik ez dute adostasunik lortu. Are gehiago, langileek salatzen dutenez, hitzarmen berrian zuzendaritzak urtean zortzi lan egun gehiago proposatzen di-

tu. Horren kontra egiteko, maiatzaren 17an egindako batzarrean gehiengoz erabaki zuten geldialdia egitea.

Manifestazioaren bukaeran, zuzendaritza

«behin eta berriz mehatxuak egiten dabilela» adierazi zuten. Egun bateko geldialdia eginenez, zuzendaritzak lantegia «hiltzori motelean jartzen dela erratea» ere «mehatxutzat» jo zuten, eta gisa berean, «bortz egun edo gehiagoko geldialdiak egitea hiltzori lasterrean jarriko genukeela erratea» ere bai. Langilegoak antolakuntzaren barnean gestioa hobetzeko eskatu zuen, oraingo 1.632 orduak mantenduz.

Egoera horren aitzinean, «langilearen etorkizuna lan baldintza duinetan oinarritu dadin, lanean tinko segituko» dutela adierazi zuten, eta «langileen ordezkaritza errespetatu ezean» bertze ekimen batzuk eginen direla.

albornozak
mantelak
kuxinak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak toailak
edredoi-azal nordikoak

osatu zure landa etxea

1951tik lantzeria-etxea
Casa Cambra
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

GOIZUETA

Herri aldizkariak kalean dira

Xapo eta Goizueta astintzen
argitaratu dira aurreko asteetan

Esteban AROTZENA

Kultur Taldearen es-
kutik heldu den *Xapo*-
ren seigarren aleak eta
Segi gazte erakundea-
ren *Goizueta astintzen*-
en lehenengoak argia
ikusi berri dute.

*Xapo*k zuzen bete du
2007an ere urtero uda-
berriarekin duen hitzor-
dua, eta bere 28 orrial-
detan herritar exigente-
na ere asetzeko mo-
duko edukiak aurki dai-
tezke. Kontu eta argaz-
ki zaharrak, erreporta-
jeak, elkarrizketak, bi-
daiak, artikulua, eta
abarrak osatzen dute
etxez-etxe doan bana-
tu den aldizkari honen
aurtengo alea.

Orri gutxiagokoa, bai-
na hagitz mamitsua eta
koloretsua da herriko
Segiko gazteek argita-
ratu duten *Goizueta as-
tintzen*. Hiruhilabeteka-
ria izateko asmoarekin,
jaio den aldizkari hone-
tan herriko arazoei eta
gabeziei begirada bo-
tatzeaz gain, hautes-
kundeak eta gazteek an-
tolatutako Txinoko fes-

tak dira aipagai. Segi-
koen aldizkariaren difu-
sioa *Xapo*rena baino as-
koz mugatuagoa da, zo-
ritzarrez, hauek ez bai-
tute oraindik instituzio-
en dirulaguntzarik lortu.

Mus txapelketa *Umore Onan*

Umore Onak antola-
tua, maiatzaren 12ko
mus txapelketan 18 bi-
kotek parte hartu zuten,
eta Laxtol-Pello lesa-
karrek eskuratu zuten
sari nagusia: nekazal tu-
rismo etxe batean lau
lagunentzat asteburu
bat. Bigarren saria, Fa-
gollaga jatetxean bi la-
gunentzako otordua,
Eustakito eta Manolito
herritarrek lortu zuten.

Patata tortila *lehiaketa*

Zaharren egoitzan
ere ekitaldiak antolatzen
dira noiznahi. Azkene-
koa patata tortila lehia-
keta izan da, eta epa-
mahaiaren ustez, Petxi-
ko Pakitak egin zuen go-
xoena. Bigarren saria,
berriz, Aiarrako Moni-
kak eraman zuen.



ARGAZKIA: MARIA APEZETXEA

Aralarko San Migelen bisita

Elizak antolatzen dituen beste hainbat ekitaldiren antzera, Aralarko San Migelen bisitak dizdira asko galdu du azken urte hauetan. Dena den, herriar mordoska elkartu zen aurten ere igande ilunabarreko etorreran eta astelehenerako agurrean.



UTZITAKO ARGAZKIA

«Muga inposatuen» aurkako ekintza

Gipuzkoa eta Nafarroa zatitzen dituen «muga inposatuaren» aurkako ekin-
tza burutu zuen Segik larunbatean, hilaren 19an Nafarroa aldean.

elkarriketak	bitxikeriak	abenturak
argazkiak	eskualdeko artzainak	

EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN

Maiatzaren 16a bitarte, ttipi-ttapako kazetariak Ameriketako Estatu Batuetan egiten ari diren bidaiaren kronika egunero gure web gunean

www.ttipi.net

ARESO

Luze jo duten arren, bukatu dira herriko obrak

Autobus geltoki aurrean, herriko
armarria egin dute harriarekin

Juana Mari SAIZAR

Nahiz eta asko luza-
tu diren, dagoeneko bu-
katu dira herriko obrak:
kaleak politak gelditu di-
ra, galtzada-harri leuna
paratu dute, bi kolore-
takoa, marrazki polita
dute, gainera. Eta bitxia
eta aldi berean, polita
dena, autobus geltoki
aurrean, borobil handi
baten barruan, harria-
rekin landu duten herri-
ko armarria da.

Migel Aingeruaren irudia bisitan

Eguraldi txarra eta gai-
xoen bisitak tarteko be-
randutu egin bazen ere,
azkenean ailegatu zen
Migel Aingeruaren iru-
dia elizara. Herri sarre-
ran esperoan egon zi-
renek, aspaldiko ohitu-
rak berriro zituzten. Ga-
rai batean, Gorrititik etor-
tzen zen zaldi gainean,
eta aresoarrak paperak



ARGAZKIA: JUANA MARI

Herritarrak Aralarko Migel Aingeruaren irudia etorri zenean.

eta zapiak hartu eta
mendiz mendi bere bi-
la joaten omen ziren.
Izan ere, Aresoko jen-
deak fede haundia

omen zuen Migel Ain-
geruarekin. Esaten de-
nez, aspalditik herrian
zabaldua zegoen izurri-
te bat bere bisitarekin

desagertu zen. Geroz-
tik, santutegian herrita-
rrentzako gela bat omen
dago, otoitz egitera joa-
ten direnentzat.

ekainak 2 **ERREKA** ren eguna
DONEZTEBE

Egun guztian kirol ekitaldiak

Herri afaria (Noelia Ariztia-ri omenaldia)

GAUPASA

ZENZEROCK • JALISKO BAND

Antolatzailea: ERREKA K.E • Laguntzaileak: Doneztebeko Udala eta ostatuak



Telekomunikabideetako elektronika



Zurgintza eta altzarigintza



Elektronika industrialia mikroprogramablea



Eraikuntza eta obra zibila



Proiektu mekanikoen garapena

Zure etorkizuna, gure erronka

Gure etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.

KALITATEA

BIDASOA Institutuak Kalitatean oinarritutako gestio-ereduen aldeko apustua egin du. Izan ere, **ISO 9000 ziurtagiria**, Eusko Jaurlaritzak ematen duen **Zilarrezko Q Saria** eta orain berriki jaso den **Kalitatearen Estatuko Lehen Saria** horren lekuko dira. Beraz, EAEko eta Estatu osoko irakaskuntzarekin konparatuz, punta-puntakoa da Bidasoa Institutuaren kalitatea.

Hezkuntza Sailak Ikerketa eta Esperimentazio Zentru izendatua du, irakaslegoaren autogestioa bultzatu bidenabar, emaitza hobek eta baliabideen probetxamendu oso-agoa eskuratzen duelako.

IKASKETA ESKAINTZA

Bidasoa Institutuak eskaintzen duen goi mailako prestakuntza teknikoari esker, eza-gutza eta formakuntza ona duten teknikoak sortzen ditu, lehiakorrak eta gure inguruko enpresentzat estimu handikoak diren teknikoak.

Era berean, lanean ari diren langileentzat

**Gure ikastetxeko
ikasleen %95
inguru,
espezialitate
guztietan, lanean
hasi da ikasketak
bukatu eta
berehala.**


Prestakuntza Iraunkorreko Ikastaroak, lanik gabe daudenentzat Lanerako Prestakuntza eta Prestakuntza Teknologia Berrietan, guztietan homologatuak.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia Berrietan buru-belarri sartua dago Bidasoa Institutua, eta baita Euskadiko berrikuntza teknologikoari buruzko proiektuetan ere: zuntz optikoaren bitartez programen transmisioa CNC makinei; irudi, hots eta datuen aldebereko-transmisioa irrati, intranet eta internetez; bio-eraikuntza; eguzki-zentral fotovoltaiko eta termikoaren sarearekiko konexioa; ahotsa interneteko teknologia bihurtzen; elektizitate arloen eta areto orokorren domotizazioa; errendimendu handiko ikasgela; e.a.



Mekanika



Elektrizitatea



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



Elizatxo, 10 20303 IRUN Tfnoa.: 943 666 010

NAZIOARTEKO TRUKAKETAK

Leonardo eta Sócrates programen bitartez, 26 beka bideratu dira Finlandia, Alemania, Grezia, Italia eta Frantzia. Horrek erakusten du Bidasoa Institutuaren nazioarteko proiektzioa eta prestakuntzarik kualifikatuena bilatzeko ahalegina, bidenabar, atzerriko hizkuntzetan trebatuz tokian bertan.

Praktiken bidez ikasleen %60a enplegatzen da praktikak egin dituen lantegi berean

PRAKTIKAK ETA LANBIDE-NORABIDATZEA

Lantegietan egiten diren praktiken bidez ikasleen %60a lanbideratzen da praktikak egin diren lantegi berean eta urtebeteko epean beste %80a beste enpresetan. Autoenpleguan ere erraztasun handiak ematen dira: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzekin, enpresa sortzeko aholkua emanez... Azken urteotan, 4 enpresa sortzen lagundu du Bidasoa Institutuak. Ikasketak amaitu dituzten ikasleentzat, Orientabide eta Lanbideratze departamentuak LANGAI-rekin elkarlanean, kasik %100eko emaitzak lortu ditu. Era berean, lanbideratzeari begira etengabeko segimendua egiten du Institutuak, ikasle goari aukera berriak bilatzen lagunduz etengabe.

ESKaintza PARTZIALA

2006/07 ikasturtean hainbat Ziklo ari gara ematen, eta horien artean Mekanizazio Ekoizpena, Eraikuntza eta Obra Zibila, eta Telekomunikazio eta Informatika Sistemak. Datorren ikasturterako ziklo berberak segituko dira ematen, eta saiatuko gara eskaintza zabaltzea Araututako Prestakuntzaren barnean gure ikastetxeak ematen dituen beste ziklo-etara ere.

Ikasketak eta lana aldi berean eginez Titulua lortzeko aukera ematen du Eskaintza Partzialak, klaseak arratsaldeko 6etatik 9etara ematen baitira.

Aukera honetaz baliatzen ahal dira 21 urte baino gehiago duten pertsonak. Horretarako, 2 urteko lan-esperientzia eta eskatzen den Titulazioa frogatu behar da.

Ikasketak eta lana aldi berean eginez Titulua lortzeko aukera ematen du Eskaintza Partzialak

ESKaintza AKADEMIKOA

A eta D ereduetan

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioa

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Neurritza egindako arotzeriaren eta altzarien fabrikazio eta instalazioa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia-berriztagarriak.
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

SARTZEKO BEHAR DA:

DBH, IEEko 2. maila, BBB-2, LH1 edo baliokideak
18 urtetik gorakoak frogatzen bidez

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio ekoizpena
- Proiektu mekanikoen garapena

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena.

ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA

- Hirigintza proiektuen garapena eta topografia-eraiketa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia berriztagarriak
- Telekomunikabide eta informatika sistemak
- Produktu elektronikoen garapena

SARTZEKO BEHAR DA:

Batxilergo LOGSE, LH-II, UBI edo baliokideak.
20 urtetik gorakoak
froga bidez

**PREINSKRIPZIO
EPEA
Ekainaren 1etik 7ra**

LEITZA

Hasi dira "La buena nueva" filmaren grabatze lanak

Besteak beste, herriko plaza, San Migel eliza eta Juaneneako irudiak grabatuko dituzte

Joseba URKIOLA

Orain hilabete batzuk iragarri moduan, Leitzan pelikula bat grabatuko dute. "La buena nueva" du izenburua. Helena Tabernaren zuzendaritzapean, lan honek Gerra Zibileko garaiak eta bertako istorio batzuk hartuko ditu ardatz nagusiz.

Film luzeko protagonista Unax Ugalde gasteiztarra izango da. Honetaz gain, Euskal Herrian ezagunak diren bestelako pertsonaia batzuk ere present izanen dira. Dena den, aipatu, udazkenean Udalteixean eta Amazabal Institutuan egin ziren probek ere euren fruituak eman dituztela. Horrela, herritar batzuk Helena Tabernaren filman parte hartzeko aukera izanen dute.

Film osoa ez da herrian grabatuko, baina filmaren arduradunek esan dutenaren arabera, datozen asteetan herriko hainbat toki eta txokotako irudiak hartuko dituzte. Aipagarrien ar-

tean: Plaza, San Migel eliza eta Juanenea. Grabaketa lanak lehengo astean hasi ziren, eta esanak betetzen badi-ra, San Juanak bitarte, Unax Ugalde eta konpainia herrian ikusteko aukera izanen dugu.

Juana Irurtia II. Ipuin Lehiaketako irabazle

Leitzako Kultur Taldeak antolatutako II. Ipuin Lehiaketa Juana Irurtia Lizarragak eskuratu zuen. Aurtengo irabazlearen izena, maiatzaren 4an herriko liburutegian egin zen ekitaldi batean eman zen argitara. Juanak eginko idazkiaren izenburua, "Galtzadabordako Lutxi" izan zen.

Irabazleaz gain, aurtengo sariketan beste lau pertsonak ere hartu zuten parte. Aurretik jakinarazi bezala, hauen guztien lanak liburu batean bilduko dira, eta idazki bilduma interesatua dagoen ororentzako, liburutegian egon da.



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

Ospakizun ugari San Migel parrokian

Maiatzeko ohiko lore eskaintzekin batera, Leitzako elizan ospakizun ugari antolatuak izan dira. Apirilean hasi eta udazkena bitarte, larunbat askotan ezkontzak egoteaz gain, jaunartze eta sendotza egingo dutenak ere protagonista baitira. Jaunartzeak maiatzaren 20an egin ziren. Aurtengoa, 1998. urtean jaiotakoak izan dira protagonistak —argazkian—, guztira zortzi. Aipatu, normalki, Leitzan jaunartzeak maiatzeko azkeneko igandearen ohi direla. Baina aurtengoa, hauteskundeak zirenez, data aurreratu egin behar izan dute. Sendotza, berriz, ekainaren 2an egingen da. Egun horretarako hitzartuta dauden gehienak, 1990. urtean argia ikusitakoak dira.

Autobus geltokiak berriro aldatuak

Orain hilabete batzuk, Mariezcurrena S.L. eta La Roncalesa enpresetako autobusen geltokiak aldatuak izan ziren. Orain gutxi eta herriko ugariren eskaerak aintzat hartuta, Udalak geltoki berriak finkatu ditu. Honako hauexek lirateke gune berriak: Mariezcurrena S.L. enpresako autobusa, Korrenea eta Basumenearen arteko espaloian hartu ahal izango da. La Roncalesa etxearen zerbi-

tzua, berriz, Santander banketxea dagoen eraikinaren alboko pasabidean.

Plazako XV. Pilota Txapelketa

Maiatzaren 19an hasi zen, aurtengo Plazako Pilota Txapelketa. 2007koa, XV. edizioa izango da, eta urtero bezala, aurtengoan ere bikote askotxok eman dute izena. Partiduak, oke-rik ezean, larunbatetan jokatuko dira. Amaiera, berriz, uda hasierarekin batera emango zaio.

Musika Eskolako kontzertua

Agorreta Musika Eskolak ikasturte bukarako kontzertua eskainiko du heldu den ekainaren 15ean. Eliza atarian izanen da, 18:00etan. Gisa berean, aipatu, asteazken honetan piano, klarinete, txistu eta kitarra emaldia eskaini zutela musika eskolako ikasleek, eta ostiral honetan, akordeoi, saxofoi eta bateria emaldia egingen dela, 18:30ean eliza atarian.

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnoa: 948 639 735 - 407 406 781

Donamaria'ko Benta

Erreserba bidez bokarrik: 948 450708


Menu MEXIKAR GASTRONOMIKOA:

25 euro pertsona bakoitzeko
Mexiko ezagutu gastronomikoki
sukaldari mexikarra


2007-06-09
2007-07-14
2007-08-11

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIEsek
Nafarroa Garaiko Mendialdean
hartu duen eremuan ere




IRAKURLE KOPURUAK (milakoetan)




SEXUAREN ARABERA

gizonak
emakumeak




ADINAREN ARABERA

14-20
21-25
26-35
36-45
46-55
56-65
>65



IKASKETA MAILAREN ARABERA

Ikasketarik gabe
Lehen ikasketak
Lanbide Heziketa
Batxilergoa
Unibertsitatea



**DATU
ITURRIA:**

**CIES 2007
1. azterketa aldia**

BAZTAN

Saihesbiderako aukeratu den proiektuak uholdeak eragin ditzake

Hala dio Ur Konfederazioak

Maite OTEIZA

N-121B errepedeko saihesbidea egiteko aukeratutako proiektuak uholde arriskua eragin dezake Arraioz eta Oharriz artean. Horrela ondorioztatu daiteke Iparaldeko Hidrografia Konfederazioak (CHN) egindako azterketa bategatik. Txosten horren arabera, saihesbidea egiteko aurkeztutako lau proiektuek «*uholde arrisku haundiak*» sor ditzakete. Ohartarazi dutenez, Oharrizko inguruetan «*osotasunean 50 urtean behin eginen luke gainezka, eta %53ean 10 urtetik behin*».

Erratzuko kontsultarako dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak 21.092 euroko dirulaguntza emanen du Erratzuko kontsulta berriaren bigarren fasera-

ko. Laguntzak maiatzaren 14an onartu ziren, eta Nafarroa guztiko kontsultategien artean 900.000 euro emanen dira.

Almandozko bestak

Udan sartzeko atarian gauden honetan, besta giroa nabaria da Baztanen ere. Berroetakoen eta Iruritaen ondotik, heldu den astean Almandozkoen txanda izanen da. Ekainaren 6an hasi eta 10 bitarte izanen dira.

Hurrengo asteazkenean, **ekainak 6**, 12:00etan botako duten altxaferoarekin emanen diote hasiera. 21:30ean Baztan zopak izanen dira eta 00:00etan dantzaldia Agerralderekin.

Biharamunean, **ekainak 7**, goizeko 8etan Aurora izanen da, eta 12:00etan Meza Nagusia. Mezondoan, berriz,



ARGAZKIA:MAITE OTEIZA

Omenaldia Maribel San Joseri

Iruritaen bestetako Salbatore Egunean, dantzarien emanaldia hasi baino lehen, Maribel San Joseri omenaldi xume eta hunkigarria egin zioten herriko dantzariak, azken 25 urteetan dantza berriak erakuzteaz gain, galduta zeuden zenbait dantza ere berreskuratu dituelakoz. Asier Marriez-kurrenak eta Andrea Karrikaburuk lore sorta eta kuadro bat oparitu zizkieten. Ondotik, Andres Elizaintzin, Nuria Garate, Aritz Urrutia eta Idoia Argainek ohorezko aureskua eskaini zioten, bertakoak hunkituz. Larunbatean, berriz, zikiro jatean, Amets Arzallus eta Kolinaren bertsoak jaso zituen. Orain dela lau urte, lehenbiziko aldiz etorri ziren berarekin.

luntxa izanen da pilota plazan. Arratsaldean, 17:00etan, herriarren arteko pilota partiduak jokatuko dira, eta beranduago, 21:30 aldera kalderetea frontoian.

Ekainaren 8an Haurren Eguna izanen da. 11:00etan magoak, 16:00etan puzgarriak eta 17:00etan mus txapelketa. 21:30ean afaria izanen da gazteen-

tzako, eta 00:00etan dantzaldia Agerralderekin.

Larunbatean, **ekainak 9**, eguerdian, mus txapelketaren finala jokatuko da. 14:30ean zikiro jatea izanen da, eta bazkalondoa alaitzeko 16:30ean Agerraldeko du. Gauean Jalisko Band eta Txutxin Ibañezek dantzaldia eskainiko dute.

Azken eguna, **ekainak 10**, gosari berezi batekin hasiko dute, goizeko 7:30ean. 12:00etan haurren jaunartzea eta Meza Nagusia egiten da, eta ondotik luntxa. 16:00etan puzgarriak izanen dira, eta 18:00etan urdai azpiko bat zozketatuko da.

Bestei amaiera emateko 00:00etan *Gaioxo ni*.



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iratxe karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Okindegia

Jatetxea

Uxo



OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)

Especialitatea parrillan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea, goxo goxo!

Ordoki Industrialdea

Tfnoa: 948 453 403

31713 ARIZKUN

BAZTAN

Mediku batek lana utziko duela abisatzeak, agerian utzi du zerbitzuaren egoera larria

Asteburuetan ordezkapenak egiten dituztenek astegunetan lan bajak betetzen dituzte

Maite OTEIZA

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin ordezkapenak egiten zituen mediku batek lana utziko duela iragartzeak, agerian utzi du inguruan zerbitzuaren egoera larria dela. Herri guzti horietako jendea atenditzeko sei mediku titular daude, 5 Baztanen eta 1 Xaretan. Horiez gain, asteburuetan ordezkapenak egiten dituztenak daude.

Prentsaren bidez ezaguna egin da Nafarroan lan egiten duten mediku egoiliarren (MIR) egoera, eta beren kezkak eta eskarrazkein diren. Agian Iruñeko arazoa dela irudituko zaigu, baina ez da horrela. Baztanen bai medikuak eta baita herriarrak ere kezkak daude duten zerbitzuarekin. Titularren lan bajak ordezkoeekin konpontzen dira, baina honen dakarrena zera da: asteko zazpi egunetan lanean daudela, bortz egun baja hori betetzen



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Mediku egoiliarren egoerak ezinegon sortu du inguruko osasun etxeetan.

eta asteburuan ordezkapenak egiten. Medikuek diotenez, gaixoei ematen dieten zerbitzua defizitarioa da, eta denbora falta zaie bere prestatuntza eta azterketak egunean eramateko.

Nafarroako Osasun Departamentuari kezka hauek ailegatu zaizkio, baina, antza, ez dute erantzunik hartu. Hala, maiatzak 25ean, ortzile-

ria, medikuek agerraldia egitekoa zuten Arizkunenean, baztandar guztiei informazioa zabaltzeko.

Merkatari Elkartearen kanpaina berria

Egun hauetan Bertan Merkataria Elkartearen «Irabazi zure pisua eurorotan» izeneko kanpaina parte hartzen ari da.

Egitasmoa maiatzaren 21ean paratu zuten abian eta ekainaren 4a bitarte iraunen du. 20 eurotik goitiko erosketak egiteagatik bezeroek txartel bat eskuratzen dute, eta horren arabera saria jasoko dute. Guztira hamar sari banatuko dira, eta heldu den asteartean, ekainak 5, egingen da sari banaketa, Arizkunenean,

20:00etan. Kanpainaren helburua, kontsumitzaileak Baztango komertzioetan erosketak egitera bultzatzea da, eta hala, euren fidelotasuna saritzea.

Kanpaina maiatzaren 11n egindako batzar orokorrean onartu zen, baina bertzelako gaiak ere landu zituzten merkatariek egun horretan. Horien artean, 2006ko Eguberrietako Kanpainaren eta Stock Azokaren arrakasta nabarmendu zuten. Urtelorr (Arraiozko merkatalgunea) eta Magna enpresarekin ere bildu zirela jakinarazi zuten, eta azken honi, egin nahi duen harrobiari buruzko informazioa eskatu zioten. Apartatzeko lekuak egiteari buruz ere Udalarekin hitz egin dutela adierazi zuten.

Elkartea zabaltze aldera, azkenik, ostalari eta zerbitzu guneei elkartearen sartzeko gonbidapena egiteko asmoa ere iragarri dute Bertan elkarteak.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua

945 581 405
945 580 433
Frentzuegatorik 12
Amestabile 3D
ELBETE

Maderas GOMEN

Tel: 945 580 645
Zaldubia Industrialdea
IRURITA

- Era guztietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Iturria
hidrosistemak & instalazioak

HIDRORENTZTA
HIDROSEMBRA

FERMIN MASTOTXORNA
LARRALDEA

945 581 405
945 580 433

KULTURA

Institutuetako 600 ikaslek parte hartu dute urteroko kontzertuetan

Lekaroz, Bera, Doneztebe, Leitza eta Altsasukoak bildu dira

ttipi-ttapa

Urtero bezala, aurtengoan ere Lekaroz, Bera, Doneztebe, Leitza eta Altsasuko institutuetako 600 ikasle inguruk, aipatutako bortz herri horietan, kontzertuak eman dituzte ikasurtean musika arloan ikasi eta landu dutena erakusteko asmoz.

Lehendabizikoa, maiatzaren 22an eskaini zuten Lekarozko institutuko kiroldegian. Bigarrena, maiatzaren 23an Doneztebeko pilotalekuan. Biharamunean, hilak 24, Altsasuko Burunda pilotalekuan egin zen hirugarrena. Azken bi saioak aste honetan egin dira, asteartean, Leitza pilotalekuan, eta asteazkenean Berako Eztegar pilotalekuan, aurtengo azkena.

Eskaini zituzten doinuei dagokienez, mota desberdinetako abestiak entzuteko aukera eman dute aurten ere, tartean ikasleek eurek



ARTXIBOA

Instituetako musika ikasleak emanaldiak eskaintzen ibili dira herriz-herriz.

asmatutako bat ere bai: Epelde eta Larrañagaren *Kupela*, Smash Mouth-en *Shrek* (All Star), Fool's Garden-en *Lemon Tree* kantua, Antonio Aguilarren *Caballo prieto azabache*, Creedence Clearwater Revival-en *Have you ever seen the rain*, Julieta Venegasen *Me voy*, Urtzen *Kaixo kantua*, Aritz Urrutiaren *Oihanari* (In Me-

moriari), *Hegikantu* herrikoia, Siniestro totalen *Miña terra galega* eta bukatzeko John Farraren *Grease*.

Doinu horien artean bat nabarmentzekotan, zortzigarrena egin daiteke, *Oihanari* kantua, alegia. Ikasleek joan den otsailaren 28an N-121A errepidean izandako istripuan zendu zen Oihana Altuna Lekarozko ins-

titutuko irakasleari eskaini zioten abesti hau. Kantua Aritz Urrutia aipatutako institutuko ikasleak egin zuen, 4.A, B eta C geletako ikasleek izenean.

Zuzendari lanetan, berriz, Xabier Loitegi, Amaia Cordoba, Pello Gorrotxategi, Mirari Telletxea, Aitor Larrañaga eta Joxan Zabalo aritu ziren.

MENDIA

Bidexketako seinaleak hobetzeko laguntza onartu du Gobernuak

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak 34.869 euroko dirulaguntza eman du Nafarroako mendietan dauden ibilbide luzeko bidexketako seinaleak hobetzeko. Horietatik 87.313 euro urte honetan inbertituko dira, 119.063 2008an eta gainerako 10.493 euroak bi urte barru 2009an. Laguntza jasoko duten bideen artean eskualdetik pasatzen den bat dago: GR 11 "Pirinioetako Bidexka" hain zuzen, 181 kilometroko ibilbidea duena. Bidexka hau Gipuzkoatik dator gure ingurura. Irunen barna ailegatzen da Lesakara, San Antongopresara. Eta ondoko ibilbide hau egiten du: Bera, Etxalar, Elizondo, Urkiaga, Burgete, Orbaitzeta, Irati, Otsagabia, Izaiba eta Zuriza.

m bentamiguel
denda, jatetxea eta ostaldea

Ongi zaizduten sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Jauaridenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa • 948 631 209

MARTIKO
Ahatekietan adituak
eta arituak

Martiko Peli Zelaia, s/n.
31760 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016
Fax: 948 625036
www.martiko.com

**Martikorekin
zu zeu
sukaldari.**

ESKUALDEA

Uholdeek eragindako kalteak konpontzeko 8,72 milioiko laguntza onartu du Gobernuak

Baztan, Beintza-Labaien, Etxalar, Eratsun, Ezkurra, Saldias, Urdazubi, Zubieta eta Zugarramurdirentzat

ttipi-ttapa

Maiatzaren 4an izandako uholdeek eskualdean eragin zituen kalteak konpontzeko diru-laguntza onartu du Nafarroako Gobernuak. Horren bitartez, 8,72 milioi euro banatuko dira. Horietatik, 5.136.000 euro Tokiko Administrazioari dagozkio (ondoko taulan ageri da eskualdeko herrietan zenbateko laguntza hartuko den). Zenbait alakterentzat, ordea, dirulaguntza hori ez da nahikoa izanen sortutako kalteak %100ean finantzatzeko.

Errepide sarean sortutako kalteetarako 2.582.204 euro aurreikusi dira. Laguntza hori Mugairiko barrutiak barne hartzen dituen 15 errepidetarako izanen da, eta Arraiozko saihesbidean izandako kalteentzako.

700.000 euro nekezaritzara bideratuak izanen dira: 600.000 titulartasun publikoak dutenentzat, eta 100.000

pribatuentzat. Alor honetan, kaltetuenak Baztan, Beintza-Labaien,

Etxalar, Urdazubi, Zubieta eta Zugarramurdi izan ziren.

Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailak, berriz,

300.000 euro banatuko ditu ibaiak eta obra hidraulikoak hobetzeko.



HERRIAK	ZERTARAKO	LAGUNTZA
Baztan	Amaiur, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Elbete, Elizondo, Gartzain eta Iruritan kaltetutako bideak konpontzeko. Arraiozko kasuan, zoladura eta karriketako obrak, eta telefonía, gasa, elektrizitatearen kanalizazioak. Gartzainen obra jakin batzuk.	2.589.888
Beintza-Labaien	Bideak	116.443
Etxalar	Bideak eta karrikak	216.360
Eratsun	Bideak	19.881
Ezkurra	Bideak eta karrikak	15.542
Saldias	Bideak	14.112
Urdazubi	Bideak eta karrikak	1.063.707
Zubieta	Bideak eta karrikak	198.383
Zugarramurdi	Bideak eta karrikak	901.503

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berrizartzearen sortzea

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ZOANSA

MARKA GUZTEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaleja Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
 Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua www.ttipi.net eta **Ttipi-Ttapa** telebistan ere aurkituko duzu

Nekazaritza ustiategiak modernizatzeko laguntzen deialdia onesten duen Foru Agindua, 2007rako, Landa Garapnerako 2007-2013 urteetarako Programaren barnean. Laguntzak lehia-keta bidez emanen dira.

Non argitaratua: *NAO 62 zk., 2007/05/18* 135/2007 Foru Agindua, maiatzaren 10ekoa *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana.*
<http://www.cfnavarra.es/bone/075/F0707808.htm>

Abeltzaintza ustiategiak modernizatzeko eta nekazari gazteak beren gain hasteko laguntzei buruzko arauak ezartzen dituen Foru Agindua (Goian aipatutako laguntza horri buruzko arauak ezartzen dituen). Hau ere Landa Garapenerako 2007-2013 urteetarako Programaren barruan.

Non argitaratua: *NAO 51. zk., 2007/04/25* 83/2007 Foru Agindua, martxoaren

27koa, *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana.*

<http://www.cfnavarra.es/BONE/074/F0705599.htm>

Lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak emateko 2007ko deialdiak onesten dituen ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 62. zk., 2007/05/18* 1397/2007 Ebazpena, maiatzaren 9koa, *Industria eta Merkataritza zuzendari nagusiak emana.*

<http://www.cfnavarra.es/bone/075/F0706456.htm>

2006-2007 ikasturtean Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan testuliburuak erosteko beka eta laguntza deialdia behin-behinekoz ebazten duen ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 62. zk., 2007/05/18* 356/2007 Ebazpena, apirilaren 12koa,

Hezkuntza Departamentuko Eskola eta Lanbide irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana.

Epe-amaiera: *2007/05/18*

<http://www.cfnavarra.es/bone/075/F0706456.htm>

«Kulturgune, museo, fundazio edo lokal pribatueta estudioak edo languneak alokatzeko laguntzak» deialdiko arauak onetsi, haiek emateko 24.000 euroko gastua baimendu eta arauak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 64. zk., 2007/05/23* 100/2007 Ebazpena, maiatzaren 8koa, *Vienako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak emana.*

Epe amaiera: *2007/06/20*

<http://www.cfnavarra.es/BONE/075/F0707809.htm>

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da. Konsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean

Nafar merkaritzarako *kalitate* programa

Kalitateak aparteko bihurtzen zaitu



> **Javier Leiza** *Export-Bortzirak - Bera*

"Kalitate programak nire negozioari buruz erreflekzionatu-arazi eta merkataritza nire bezeroen norabidean bideratzea ahalmenu zuen"

> **Carlos Ostiz** *Casa Ostiz - Donztebe*

"Nire negozioaren barruko kudeaketa hobetzean nire bezeroei dagokionez hobetu dut"

Argibideak: 948 23 99 08 • calidad@comercionavarra.com

ZUGARRAMURDI

Ekainaren 9rako bide garbiketa antolatu du Akelarre Elkartek

Errotako bidea, eta Sara eta Urdazubi aldeko pottoka bideak garbitu nahi dira

Margari eta Koro

Akelarre Elkartek antolaturik ekainaren 9an "Bide garbitzea" egingen da herrian. Gure ingurumena zaintzeak duen garrantzia erakutsi nahian, herritar guztiak deituak daude parte hartzera. Hitzordua 10:00etan izanen da Akelarrenean, eta ez da deus eraman beharko. Antolatzaileak behar dena eramanen baitute. Asmoa hiru bide garbitzea da: errotako bidea, Sara aldeko pottoka bidea eta Urdazubi aldeko pottoka bidea. Antolatzaileek bazkaria ere eskainiko dute.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

zeak" baita. Ez gene-
kien hain garrantzitsuak
zirenik gure lezeak. Tu-
rismo aldetik eta sorgin
kontuak direla-eta, fa-
ma dutela bai, baina
orain, DBH-1eko ikas-
leek leze hauek ondare
artistikoa bezala ikasi
beharko dituzte.

Uholdeetan kaltetutakoa konpontzeko dirulaguntza.

Eskualdeko bertze
herrietan bezala, maia-
tzaren 4ko uholdeek
eragindako kalteak kon-
pontzeko laguntza ema-
nen du Nafarroako Go-
bernua. Zugarramur-
diren kasuan, dirula-
guntza 901.503 euro-
koa izanen da eta pis-
tak eta karrikak kon-
pontzeko izanen da di-
rulaguntza hori.

Zugarramurdiko lezeei buruzko irakasgaia

Ikasketekin zerikusia
duen LOE izeneko lege

Urdazubi aldera doan Pottoka bidearen hasieran zikinkerri franko bada, eta argazki honetan ageri den bezala, horietako batzuk tamaina haundikoak.

berri bat indarrean ja-
rriko da heldu den ikas-
turtean. Gure haur eta

gazteek zer ikasi behar
duten agintzen du lege
berri horrek, eta hortan,

sorpresa bat izan dugu:
ikasi beharko duten gai
bat "Zugarramurdiko le-

Mailposta Buzoneos
Leitzakoa bidea 9, DONEZTIBE • 948 592 313
inprimategia
publizitatea
diseinu grafikoa

POTTOKI
Pottokiri Plaza, 5-1 lehen
Nº1001 ELIZONDOR L. Añanasa
Tlfno: 948 581 943
www.pottoki.com
ofondopottoki.com
Abituruetan lekuak: 9:30 - 15:30
16:30 - 20:00

BAR-OSTATVA MON
ZATOZTE
TRAGOA
EDATERA
ESTANCO - TABACCO BENDA
ANZAN-BORDA
VRDIX - VRDIZVBI

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA
300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak
EGUNERO IREKIA
Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

SENPERE

3.500 lagun kaltetuen alde Baionak eta Miarritzek jokatutako errugby partidan

Argazkilari berriak hartu du orain arteko herriko argazki egilearen tokia

Franck DOLOSOR

Maiatzaren 4ko uholdeen ondotik, elkartasun kate zabala sortu da herrian urak sortu zituen makurreri buru egiteko. Lan anitz egiten ari da etxeetako eta gune publikoetako bazterrak garbitzeko eta konpontzeko. Ura ehunka etxeetan sartu zen, 400 abere ito ziren eta mila ibilgailu bota behar izan dira. Inguruetako herrietatik ere elkartasuna etorri da.

Uholdeak gertatu bezain laster eta kalteak haundiak zirela ikusirik, Aviron Bayonnais eta Biarritz Olympique Pays-Basque TOP14an lehiatzen diren taldeetako buruzagiek adiskidantzako partida bat jokatzea deliberatu zuten. Lehia hori Salvatore Egunean egin zen Donibane Lohizunen. Miarritze nagusitu zitzaion Baionari 28 eta 7. 3.500 lagunek ikusi zu-

ten partida eta bildu den diru guztia Urdazuri aldeko kaltuei emanen diete. Bertzalde, Peña Baiona eta Aupa BO zale taldeek ere 2.000 euro eskaini dizkiete kaltetuei.

Senpereko ondare historikoak ere kalte haundiak jasan ditu. Herriko Etxeak Uhaldeko zubia konpondu behar zuen Amotzen, baina lanak hasi aitzinetik lurrrerat erori da uholdeengatik. 1983ko uholdeetan aintz sufritu zuen historia haundiko zubi honek baina geroztik nehork ez du deus egin senpertarren historia luzeak aipa ditzaken zubiaren alde.

Erearoaren 3an, kontzertu bat izanen da kaltetuen alde Miarritzen, Atabal musika aretoan. Daguerre, Izate, Roots System taldeak eta Francis Cabrel kantari ospetsua entzuten ahaliko dira.

Argazkilari berria

Marc eta Françoise Pierrot argazkilariak erretiroa hartu dute berriki eta orain argazkilari berria dugu herrian: Karin. Champagne eskualdekoka da sortzez, eta azken bi urteak Pauen pasa ditu. Karinek aspalditik amesten zuen bere kondu ematea, ametsa egia bihurtu da, baina amets gaizto ere bilakatu da pixka bat. Saltokia maiatza hastapenean ireki zuen eta handik hiru egunetarat uholdeak jasan zituen dendan.

Badira 19 urte Marc eta Françoise Pierrot, «Flash» izengoitiarekin ezagunak, herrian lanean ari zirela. Erretireta hartu aitzin 1994ko munduko pilota txapelketan Gantxiki pilotalekuan atera zituzten argazkiak eskaini dizkiete Herriko Etxeko hau-tetsiei. Pilotazaleek ai-



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

Maiatzaren 4ko euriteen ondotik, itxura hau zuten herriko karrikek. Oraindik lan anitz egiten ari dira herritarrak etxeak eta gune publikoak garbitzeko.

nitz preziatuko dituzten argazki horiek ondoko hilabeteetan atea irekiko dituen pilotaren erakustokian ikusi ahal izanen dira. Bertzerik gabe, TTIPI-TTAPAKO erre-dakzioak Marc eta Françoiseri eskerrak

eman nahi dizkie azken 10 urteetan aldizkari honetan agertu diren argazkiak urririk uzteagatik. Bide batez, ongi etorri eta milesker Karini, bere lanak agertuko direlaketz orain Senpereko berriei.

LA VILLA

